

Eskubaloi txikia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK


1. JOKO EREMUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

1.1. Joko eremuaren forma eta neurriak.

Joko eremua 20 m luze eta 13 m zabaleko laukizuzen bat da.

a) Oinarrizko seinalizazioa.

- Jaurtiketa librearen marra atetik 7 metrora dago.
- Penalti puntua atetik 6 metrora dago.
- Ateko arearen marra atetik 5 metrora dago.



Eskubaloi txikia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

1.2. Ateen forma eta neurriak.


a) *Benjaminetan:*

Barruko neurriak 3 m zabal eta 1,60 m altu dira.

b) *Alebinetan:*

Barruko neurriak 3 m zabal eta 1,80 m altu dira.

Bi langeten artean sarea jarri behar da ustezko golak saihesteko. Baloiak arauzko langetaren gainetik joz gero, ateko sarea izango da.



2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

2.1. Taldeen osiera.

a) *Jokalariak aktan.*

Talde bakoitzak gutxienez 6 jokalaria eduki beharko ditu eta partidako aktan izena eman behar dute.

b) *Joko eremuko jokalaria.*

Joko eremuan, eta aldi berean, talde bakoitzeko gehienez ere 5 jokalaria egongo dira (jokalekuko 4 jokalaria eta atezaina).

2.2. Jokalariak txandatzea eta aldatzea.

a) Aktan izena eman duten jokalaria guztiek gutxienez zati oso bat jokatu behar dute, lehenengo hiru zatitan.

b) Lehenengo hiru zatitan ezin da aldaketarik egin, lesio edo istripurik gertatu ezean.

c) Laugarren zatian taldeen osiera librea da eta entrenatzaileak nahi beste aldaketa egin ditzake, baldin eta jokalariek a) puntua bete badute.

d) Zati bakoitzean atezaina diferentea izango da, nahitaez.

OHARRA: Partida bat hasi aurretik taldeek epaileari jakinarazi beharko diote aldi bakoitzean zein jokalarik parte hartuko duten, eta aldaketak egiteko gunean edo aulkian soilik aktan izena emanda daudenak (jokalariak, ofizialak eta entrenatzaileak) egotea zaindu beharko dute.

3. PARTIDEN IRAUPENA.

- Partidak bi zati izango ditu eta zati bakoitzak 10 minutuko bi aldi. Aldien artean bi minutuko atsedenaldia egiten da eta lehenengo eta bigarren zatien artean 6 minutuko atsedenaldia.

4. MATERIALA.

a) *Baloia*

- Benjaminetan:

Baloiak 44 eta 46 zentimetro bitarteko zirkunferentzia edukiko du (neurria 00).

- Alebinetan:

Baloiak 48 eta 50 zentimetro bitarteko zirkunferentzia edukiko du (neurria 0). Ez du 290 gr baino gehiago pisatu behar.

Eskubaloi txikia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Ateko area.

Atezaina bakarrik egon daiteke ateko arean, beraz, jokalekuko jokalariren batek gorputzeko edozein atalekin ateko area ukituz gero, baita ateko arearen marra ere, area barruan sartu dela ulertuko da eta zigortu egingo da.

5.2. Nola jokatu daitekeen baloia.

Onartzen da:

- a) Baloia jaurti, kolpatu, bultzatu, ukabilez jo eta gelditzea edo esku, beso, buru, soin, izter eta belauen laguntzaz baloia hartzea.
- b) Baloia 3 segundoz gehienez edukitzea, nahiz eskuetan nahiz lurrean dagoela.
- c) 3 urrats egitea gehienez, baloia eskuetan dela. Urratsa izango da honakoetan:
 - Bi oinak lurrean dituela, jokalaria batek oin bat jaso eta berriz lurrean jartzen duenean edota oina jaso edo mugitzen duenean.
 - Oin bat lurrean duela, jokalaria batek baloia hartu eta jarraian beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
 - Jauzi-gailurrean dagoen jokalaria batek oin bakarrarekin lurra ukitu eta oin beraren gainean berriz jauzi egiten duenean, edo beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
 - Jauzi-gailurrean dagoen jokalaria batek bi oinak batera lurrean jarri eta oin bat jaso eta berriz ere lurrean jartzen duenean edo oina mugitzen duenean.

5.3. Aurkariarekiko portaera.

Onartzen da:

- a) Baloia eskuratzeko besoak eta eskuak erabiltzea.
- b) Aurkariari baloia kentzea ahurraz eta edozein aldetatik.
- c) Aurkariari bidea oztopatzea soinarekin, baloia ez eduki arren.

5.4. Alboko sarea.

Alboko sarea ateratzen duen jokalaria alboko marra zapaldu behar du oin batekin baloia jaurti bitartean.

5.5. Ateko sarea.

Ateko sarea txilibitua jo gabe eta ateko areatik egin behar da.

5.6. Jaurtiketa librea.

Jaurtiketa librea txilibitua jo gabe eta, nagusiki, falta gertatu den lekutik egiten da.

Falta ateko arearen marra eta jaurtiketa librearen marra artean gertatu bada, erasoan ari den taldearen aldeko jaurtiketa librea jaurtiketa libreko marretatik egingo da, falta puntutik gertuen dagoen lekutik, eta sarea egiten den bitartean erasoan ari diren jokalariek ezingo dute marren arteko eremuan egon.

5.7. 6ko marrako jaurtiketa.

6ko marrako jaurtiketa zuzenean ate aldera egin behar da, arbitroak txilibitua jo eta ondorengo 3 segundotan.

Jaurtiketa egiten den bitartean, jaurtitzaila bakarrik egon daiteke ateko arearen eta jaurtiketa librearen marren artean. Jokalaria horrek ez du 6 metroko marra ukitu edo gainditu behar baloia bere eskutik atera aurretik.

6ko marrako jaurtiketaren ondoren ezingo da baloia berriz jokatu ez badu atezaina edo atea ukitzen.

5.8. Jaurtiketak.

Erdiko eta alboko sarea, jaurtiketa librea edo 6ko marrako jaurtiketa egiten denean, jaurtitzailak lurretik altxa gabe eduki behar du oinetako bat, bestea, berriz, altxa edo lurrean jarri dezake zenbaitetan.

Baliozko gola lortu daiteke zuzenean jaurtiz edozein sake edo jaurtiketatik.

5.9. Defentsa motak.

Debekatuta dago defentsa mistoak, hau da, jokalaria bakarra defenditzea, eta defentsa itxiak

B Benjaminak
A Alebinak
G Gizonezkoak
E Emakumezkoak

Eskubaloi txikia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

egitea. Banakako defentsak eta defentsa irekiak bakarrik onartzen dira (2:2).

5.10. Geldotasuna.

Benjamin eta alebin kategorietan arau hau ez da kontutan edukiko.

5.11. Itsasgarrien erabilera.

Guztiz debekatuta dago baloira egokitzeko edozein gai erabiltzea.

5.12. Partidaren azken emaitza.

Gol bakoitzaren balioa batekoa da. Denbora bakoitza partida bat bailitza hartzen da, eta talde bakoitzak sartzen duen gol kopuruaren arabera erabakitzen da. Denbora bakoitzeko irabazleari puntu bat ematen zaio. Bi taldeen artean gol berdinketa gertatzen bada, denbora horren balioa 0 izango da. Horrenbestez, partidaren azken emaitza 0-0, 1-0, 1-1 edo 2-0 bakarrik izan daiteke, eta ez da kontuan hartuko partida osoan guztira sartu edo jaso diren golen kopurua.